



TXIKITTO!

2023ko maiatza 216. zenbakia



**Gazteen artean ere
bada zaletasunik**



IBAIZABAL



XXIX. IPURTERRE IPUIN LEHIAKETA

...eta kitto! Euskara Elkarteak Ipurterre Ipuin Lehiaketaren XXIX edizioa antolatu berri du, Eibarko ikastetxeekin elkarlanean. LH eta DBHko ikasleei zuzendutako lehiaketan, aurtan, 1.000 ipuin inguru jaso ditugu. Ikasle zein irakasleek lan bikaina egin duzue aurtan ere, txalotzeko moduko lana. Beraz, irabazleei zoriontzaz gainera, parte hartu duzuen guztioi ere gure eskerrik beroena helarazi nahi dizuegu, eta idazten eta irakurtzen jarraitzera animatu, Eibarren harrobi ederra daukagu-eta. Urteroko moduan, maiatzeko Txikitto!-ren alea ia osorik eskainiko diogu Ipurterrerri. Bertan dituzue aurtengo ipuin irabazleak, zabaldu orriak eta gozatu.

eta kitto!
euskara elkarteak

Argitaratzailea
“...eta kitto!”
Euskara Elkarteak
Urkizu, 11
20600 Eibar
Tel: 943 206776

**Erredakzio-
kontseilua**
Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
Ana Aizpurua

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96

Administrazioa
Marisol Uriarte







LH 1-2

UDAI MALLAGARAY (San Andres ikastetxea)

BABAZ BETETAKO BARAZKIAK

Bazen behin baratze bat San Andres eskolan. Ondoko patioan Oier eta Udaï futbolean jolasten ari ziren.

Bapatean Oierri baloia baratzerara jausi zitzaion eta Larnon marmokak bere burua eskaini zuen baloiaren bila joateko. Baloia hartu zuen baina konturatzeko barazki guztiak babaz beteta zeuden. Hori ikusita Udaik ura eta elefante pastaz osatutako edabe bat prestatu zuen. Barazkiei bota eta baba guztiak lurrunduz ostadar haundi bar sortu zen zeruan.

Barazkiak jan zituzten eta Udaik eta Oierrek futbolean jolasten jarraitu zuten.

Egia ala gezurra begi bien artean sudurra.





LH 3-4

IÑIGO CARRIÓN (Aldatze ikastetxea)

MUNDUKO ALTXORRIK ONENA

Bazen behin 9 urteko mutil altu bat, ez zeukan lagunik, Brighton hirian bizi zen.

Bere familia txinoa zen eta ez zuten janaririk, urik... Orduan mutila erreka batera joan zen garbitzera. Garbitzen ari zenean botila bat aurkitu zuen, eta botilaren barruan mapa bat.

Mapa horrek altxor baterantz bideratu zuen. Mutilak altxorra aurkitu nahi zuen baina oso urruti zegoen, orduan bere familiari ezer esan gabe zaldi bat lapurtu zuen eta bidea hasi zuen.

Lehenengo egunean (urik eta janaririk gabe jan gabe) bere gurasoak kexkatu ziren, bigarren egunean, bidean laborantza lurrak aurkitu zituen, azenarioak eta fruitu-lehorrak hartu zituen. Hirugarren egunean bere gurasoak pentsatu zuten hil egin zela, laugarren eta azken egunean mapak kobazulo baterantz bideratu zuen.

Mutila kobazuloan sartu zen eta gautxori handi bat aurkitu zuen. Bi aldiz pentsatu gabe gautxoria askatu zuen eta konturatu zen altxorra lagun bat edukitzea dela eta gogo beraz joan zen etxera.

Ikaskuntza: Balio handiagoa dauka lagun bat edukitzeak altxor batek baino.





LH 5-6

MALEN VEGA (J.A. Mogel Ikastola)

BEIRAZKO HIRI EZKUTUA


- Mia eskolara joateko ordua da!- esan zidan aitak oihuka.

Motxila egun bat lehenago prestatuta neukan, arropak jantzita nituen eta hortzak ere garbi-garbi neuzkan.

Barkatu, ez dakit nola hasi nire lehenengo liburu hau, ez bazaizue axola berriro hasiko naiz. Kaixo, Mia naiz, ahizpa aita, amaordea eta nire hiru neba geldiezinekin bizi naiz.

Ama duela urte batzuk desagertu zitzaidan, bai, desagertu egin zitzaidan. Horrela izan zen dena: Duela pare bat urte, nire gurasoak (amaordea ez) Camberrara joan ziren bidai bat egitera. Magia saio bat zegoen eta nire ama bolondres eskaini zen eszenatokira igotzeko. Magoak kutxa beltz batean sartzeko eskatu zion. Nola ez, nire amak magoak esandakoa egin zuen. Makiltxo magikoarekin hiru buelta eman zizkion kutxari, eta kutxaren sabaia irekitzean ama desagertu egin zen. Magoak berdina egin zuen behin baino gehiagotan ama berriro itzuli nahian, baina ama ez zen agertu, berriro gestu berdina egin zuen agertzeko, baina ez zen agertzen, esango nuke ez dudala berriro esan behar zenbat aldiz eman zizkion hiru buelta kutxari.

Ama desagertu zenetik ikertzailea naiz, oraindik ez ditut multibertso desberdinak deskubritu Spidermanek bezala, baina hortxe nabil. Aitak dio ama ez dela gehiago itzuliko, baina nik badakit berriro ikusiko dudala, eta ez argazkietan, berriro ere parkera joan ahalko gara, berarekin afalduko dut, ipuinak kontatuko dizkit oheratzerakoan...





Egun batean, dena aldatu zen Miarentzat eta ama aurkitzeko saiakera asko egin ondoren, mendira joan zen etsita. Sastraka batzuetara erori zen, eta bide txikitxo bat zegoela konturatu ondoren, bidea jarraitzen hasi zen.



Bidetxoaren amaieran etxe urdin, berde, horiak... aurkitu zituen.

Ezkutuan, herri txiki horretara

hurbiltzen hasi zen kuriositate handiarekin. Arraroena, etxeak beiraz eginda zeudela zen.

Duela lau urtetatik bizi nintzen hemen, eta askotan joaten nintzen mendi horretara. Noiztik egongo zen kobazulo hau hemen? Hala ere, ezin nintzen kanpoan gelditu eta baten barrura sartu nintzen. Momentu hartan pentsatu nuen: etxeak badaude norbait biziko da, ez? Hala zen, minutu batzuetara jendea ikusi nuen bertan, baina ez zeukaten azal beltza, txerri kolorekoa, edo beltza baino argiagoa, ez, batzuk gorriak, beste batzuk berdeak, urdin koloreko azala ere bazegoen eta ez zen hori bakarrik, ileak ere hostoekin, harri bitxiekin, adar dotoreekin egindakoak ziren.

Etxeen artetik ibai bat isurtzen zen eta emakume zoragarri batzuk zeuden lamiak izango balira bezala. Berehala konturatu nintzen horietako pertsona batek Paulen amaren kristoneko antza zuela, baina arraro egin zitzaidan, Pauli ama duela 3 urte hil zitzaiolako. Berehala ezagutu nuen jende gehiago: etxe parean dagoen okindegiko Andrea, kaleko katuak zaintzen zituen gizona... Baina denak hilda zeudela uste nuen behintzat. Bat batean nire ama ikustea iruditu zitzaidan, laster batean joan nintzen korrika eta izugarrizko besarkada potolo bat eman nion. Ama ere konturatu zen ni nintzela eta biak negarrez hasi ginen. Arnasa hartu eta galdetu nion: -“Zergatik ez zara aita, Marta eta nirekin etorri?”. Dena azaldu zidan. Orduan, ezin zen beirazko hiritik atera, bestela gure etorkizuna guztiz aldatuko zen, baina lasai egoteko esan zidan, ni nintzela toki zoragarri hau ezagutu zuen lehenengo pertsona, eta behin baino gehiagotan joan ahalko nintzela bisitan.



DBH 1-2

June Paguey (La Salle Azitain)

BESTEAK MAITATZEA MAITE

– Nola? Ez. Benetan uste duzu 18 urterekin, bakarrik eta ikasketak amaitu gabe Siriara joatea utziko dizudala? Ez dakit zer gertatu zaizun buruan, baina burutik jota zaudela dirudi.

– Ama, benetan! Izan zaitez solidarioa eta pentsatu behartsuetan behingoz. Ez al duzu ikusten jende horrek ez daukala ezer? Laguntza behar da! Eta ni ez naiz lasai biziko milioika pertsona lurrikara madarikatu batengatik sufritzen dauden bitartean.– erantzun zion Anek, haserre.

Hilabeteak zeraman zerbait desberdina egiteko gogoarekin, bere bizitzari hirurehun eta hirurogei graduko bira bat emateko ilusioarekin. Duela gutxi, irratian Siria eta Turkiako lurrikaren arazoekin laguntzeko boluntarioak behar zituztela entzun zuenean, medikuntzako ikasketak utzi eta bere burua laguntzeko aurkeztea erabaki zuen. Errutina aspergarriaz nazkatuta zegoen, eta besteei laguntzea aitzakia perfektua zen. Gainera, txikitatik izan nahi zuen solidarioa, beraz ez zegoen arazorik horrekin. Baina, nola ez, ama erditik sartu zen.

– Ez dut uste ezta egun bat ere iraungo zenukeela zoratu gabe. Hango arazoak gehiegi dira zu bezalako neskatxa batentzako. Batek daki zer gertatuko litzaizukeen han, inor gabe zu babesteko...–jarraitu zuen amak.

Amak zioena gehiegizkoa zen. Anek oso argi zeukan: Hurrengo astean hegaldia hartuko zuen Bilbon, Siriara eramango ziona beste berrogeita hamar bolondresekin batera. Bera ez zen neskatxa bat, 18 urte eta erdi zituen, beraz heldua zen bere erabakiak hartzeko. Ez zuen utziko amaren gehiegizko babesak bere laguntzeko aukera kentzea.

–Berdin zait esan didazuna. Nagusia naiz nahi dudana egiteko, eta hurrengo astean banoa.– esan zuen Anek, ziurtasunez eta serio-serio.

Amaren aurpegia aldatu zen. Orain, haserre egon ordez, kezkatuta zirudien. Anek bere begietan isladatuta ikusi zezakeen beldurra. Oso neska burugogorra zen, eta ziur zegoen nahi zuena egingo zuela. Baina beldurra zeukan. Nola ez zuen eukiko? Ez zuen nahi bere alaba galtzea. Ane neska ausarta zen eta lehena izango zen bere burua arriskuan jartzen besteengatik, eta horregatik zegoen ama hain ziur zorakeri bat zela hara joatea. “Solidarioa bai, baino azkarra ere bai”. Hori esaten zion bere amonak beti. Eta arrazoia zuen ere bai.





10:57. Ane berandu zihoan hegazkinera. Nola ez, bere bizitzako bidaiarik garrantzitsuena zen eta galduko zuen. Bere hankek ematen zuten guztia eginez gurutzatu zuen hegazkinaren atea. 10:59. Justu-justu.



Hegaldia nahiko motza irudi zitzaion, eta urduritasuna heltzen hasia zen. Bere lehenengo aldia zen beste herrialde batean bakarrik, beraz ez zuen oso argi zer egin. Eskerrak beste berrogeita bederatzi pertsonekin zegoela, haiek eramango zutela joan behar zen tokira.

387. kanpindenda ezarri zioten. Txikia, zikina eta oso hotza zen, baina ez zuen besterik espero. Egia esan, prozesua oso denbora gutxitan egin zuen eta ez zeukan ideiarik zer aurkituko zuen. Baina ziur zuen gauza bat: ez zen batere atsegina izango.

Hurrengo egunean, benetako arazoa planteatu zitzaien gazte boluntarioei. Asko aho-zabalik gelditu ziren, hain egoera tristea eta arraroa sentituz. Anek laguntzeko gogoia zuen, baina dena oso arraroa zen, ez zekien nora begiratu. Jendeak hizkuntza ezezagunak erabiltzen zituen, umeak negarrez aurkitzen zituen eta oihuak bere belarrietan mina sortzen zioten. Horrela pasa zituen bi aste, lurrikaren biktimak izan zirenei laguntzen, bizitzak salbatzen. Zaila egiten zitzaion, baina zerbaiteko zegoen han eta ez zuen aukera pasatzen utziko.

Hori bai, arazoak sortzen hasi ziren hirugarren astean. Zaurituak gehiago ziren, jendea urduritzen hasita zegoen eta geroz eta jende gehiagok laguntza behar zuen. Eta, bat-batean, gertatu zen. Segundo bateko gauza, begi kliskatze bat.

Gauzak mugitzen. Jendea oihuka. Zerua iluntzen. Korrika egiten saiatu zen, baina bere hankak ez zuten erantzuten. Oso berandu zen.

– Lurrikara!

Bihotz-bulkada gogorra sentitu zuen. Zoritxar edo zorionez, patuak bere bizitzarekin ez akabatzea erabaki zuen. Hori bai, ez zen ondo irten lurralde hartatik. 18 hezur hautsita, bizkarmium apurketa. Hura esan zioten Aneren amari. Tristeza, benetan tristeza.

– 3, 2, 1, ...Egun on! Hemen gaude, Ane Mendizabalekin, Sirian lan egiten dagoen GKE batek estaltzen duen eskualdean. Gaur, Aneri, hemen duela urte batzuk lan egiten duen zuzendariari, egunero ohetik altxatu eta hemengoei laguntzeko duen motibazioa azaltzeko eskatu diogu. Mendizabalek duela urte batzuk ezkerreko hanka eta besorik gabe utzi zion ezbehar bat izan zuen hemen bertan, lurrikaren garaian, eta egunero parte hartzen du behar dutenei laguntzen. Mila esker gurekin hitz egiteagatik, Ane.

– Zuei. Beno, jende guztiak galdetu dit noizbehin ea zergatik egiten dudan hau. Egia esanda, hau ez zen posible izango talde hau osatzen duten beste pertsona guztien gabe. Baina, zure galderari erantzunez, txikitatik gustatu zait besteei laguntzea, eta nire disgaitasunak kaltetu banau ere, ez dut uste inoiz geldituko naizenik solidarioa izaten saiatzen. Zergatiaren erantzuna oso sinplea da: besteak maitatzea maite dudalako.



DBH 3-4

Jone Alcalde (La Salle Azitain)

URREZKO KOBAZULOA

Bazen behin Izadi izeneko neska bat, beti lekutan zegoen kobazulo batean jolasean ibiltzen zena. Izadik asko maite zuen kobazuloa eta txitean-pitean joaten zen kobazuloarengana, kobazuloak beti itzala ematen zion eguzkia zegoenean, eta kobazuloa beti zegoen bera noiz itzuliko zain, biak jolasteko. Denborarekin, Izadi hazi egin zen, eta inoiz ez zuen kobazuloan berriro jolastu. Egun batean itzuli eta kobazuloak esan zion:

-Triste nago, jolastu egingo duzu nirekin?

Eta Izadik erantzun zion:

- Orain ez naiz lehen bezalakoa, orain gurasoekin bidaiatu nahi dut eta horretarako dirua behar dut.

Kobazuloak, triste, erantzun zuen:

- Sentitzen dut, ez daukat dirurik, baina ikusten ari zaren urrezko pipitak hartu eta saldu ditzakezu dirua lortzeko.

Hori egin zuen Izadik, urrezko pipitak hartu, saldu eta leku batzuetara bidaiatzeko diru nahikoa lortu zuen. Oso pozik zegoen, eta horregatik kobazuloa ere oso pozik jarri zen. Baina Izadi ez zen itzuli pipitak saldu ondoren, eta kobazuloa triste sentitu zen. Urte batzuk geroago, Izadik hogeita hamar urte zituela kobazulora itzuli zen. Kobazuloak Izadi ikustean pozik jarri zen, Izadiri begi argia egin zion eta galdetu zion Izadiri:

- Jolastu nahi al duzu nirekin?

Izadik erantzun zion:

- Ez dut denborarik jolasteko, lan egin behar dut dirua lortzeko eta nire senarra eta semeentzako etxe bat erosteko.

- Nire harritik hartu eta harrizko etxe bat eraiki dezakezu zure senar eta seme-alabentzat – esan zion kobazuloak.

Izadik harri asko hartu zituen ia ezer gabe utziz, hala ere kobazuloa zoriontsu sentitu zen Izadiri lagundu ziolako. Etxea eraiki





ondoren, Izadi ez zen itzuli eta kobazuloa berriz triste jarri zen.

Udako egun batean, Izadi bueltatu egin zen, kobazuloa poztu egin zen Izadi ikustean, eta galdetu zion:

-Jolastu egin al duzu nirekin?

Eta Izadik erantzun:

-Sentitzen dut, ezin dut, zaharregia naiz jolasteko, gustatuko litzaidake nire familiako estatua bat egitea, pertsonak bizitza honetan gu gogoratzeko.

Kobazuloak erantzun zion:

-Ez daukat zuen estatua bat, baina pikatu egin nazakezu harri pixka bat zuen estatua eraikitzeke.

Horixe egin zuen, harria pikatu eta beraien estatuak eraiki zuten. Urte batzuk geroago, Izadi kobazulora itzuli zen, baina kobazuloak kezkatuta esan zion:

-Sentitzen dut, baina ez daukat ezer zuri emateko, ezer gabe geratu naiz.

Izadik erantzun zion:

-Lasai, lagun, ez dut eskalatzeko indarrik ez ezertarako indarrik. Zaharregia naiz eta lur jota nago.

-Benetan, ezin dizut ezer eman – esan zuen kobazuloak – geratzen zaidan gauza bakarria ez erortzeko eusten didaten harriak dira, eta hor bai geratuko nintzatekeela ezer gabe.

-Orain ez dut ezer behar – erantzun zuen Izadik - , azken urteetan zalditik astora ibili naiz eta dena eman zenidan bere garaian, eta orain zaharregia naiz edozer gauza egiteko. Kobazulo baten itzala atsedean lasai eta bakean hartzeko lekuri onena da.

Eskerrik asko, ez dizut eskerrak eman eman zenidan guztiagatik, baina hobe berandu inoiz baino, ezta?

Izadi kobazuloko izkina batean eseri zen, eta kobazuloak azkenean pozik erantzun zuen:

-Bai, hobe berandu inoiz baino.

Egun hartan, Izadi bere leku seguruan hil zen, beti maitasuna izan zuen lekuan, kobazuloak zeukan guztia eman zion, bi aldiz pentsatu gabe, Izadi zoriontsu egiteko bakarrik. Kobazuloa lasai geratu zen, ahal zuen guztia eta gehiago egin zuela jakinda. Bera ere egun hartan hil zen, oraindik zutik zegoen, baina bere bihotza Izadirekin joan zen.

Kobazuloak bazuen urrea barruan, baina ez zen urrezkoa, baizik eta urrezko bihotza zuen.





Patata-pure krematsua

Imajina ezazu patata-pure krematsu bat tipulinarekin, urdaiarekin, gaztarekin... Nolako gosea sartu zaigun pentsatze hutsarekin!

OSAGAIAK:

- Sei patata.
- Esne lurrundua (3/4 kikara)
- Gurina ala margarina (1/4 kikara)
- Cheddar gazta birrindua (kikara bat)
- Gatza eta piperbeltz beltza
- Tipulina
- Urdaia



NOLA EGIN:

- 1.- Patatak lapiko handi baten irakin. 15-20 minutuz kozinatu, samurtu arte, eta xukatu.
- 2- Patatak lapikoan jarri berriz, esne lurrundua eta gurina bota, eta eskuko irabiagailu batekin irabiatu, leundu arte.
- 3- Gazta gehitu eta irabiatzen jarraitu.
- 4- Gatza eta piperbeltza gehitu.
- 5- Tipulina zati txikietan moztu eta gehitu.
- 6- Urdaia egosi, xehatu eta gehitu.



KAFE ZAPOREKO IZOZKIA

TI-TA

Izozki honi Vietnameko Kafea deitzen diote eta oso erraza da egiteko. Hasteko, kafea esne kondentsatuarekin (2/3 kikara) nahastu behar da. Izozkien molde bakoitzaren hiru laurdenak kafearen nahasketarekin bete. Izozkailuan sartu, makiltxo barik, 30-60 minutuz, hau da, nahasketa erdi-izoztu arte, eta izozkailutik atera. Gero, geratzen den esne kondentsatua, esne-krema (2/3 kikara), banilla (koilarakadatxo erdi) eta gatza nahastu ontzitxo batean. Nahasketa izozkiaren moldean bota, bete gabe geratu den tokian, eta makiltxoak jarri. Izozkailuan sartu gau osoan zehar edo izoztu arte.



DRAGOIA

Ba al zenekien komuneko paperaren hodiak bat ahotik sua botatzen duen dragoia bihurtu daitekeela? Pausu hauek jarraituz lortu dezakezu!

MATERIALA:

- Komuneko paperaren hodiak
- Arrautzen ontzia
- Zerealen kaxa bat (edo kartoizko antzeko zerbait)
- Begi irtenak
- Eva goma
- Margoa
- Guraizeak
- Itsasgarria
- Zetazko papera sugarrak egiteko (gorria, laranja eta horia)



NOLA EGIN:

- 1.- Arrautzen ontziaren zati bat moztu. Dragoi bakoitzarentzat espazio bakar bat beharko duzu. Gainera, arrautzen ontziaren zati horretan zirkulu bat moztu, bertan dragoiaren muturra egiteko, handik zetazko paperarekin irudikatutako sugarra atera dadin.
- 2- Kartoizko hodia eta moztutako arrautzen kartoia margotu. Eta, lehortzen denean, begi irtenak itsatsi.
- 3- Hegoak, besoak eta adarrak egiteko eva goma erabili, eta paperezko hodian itsatsi.
- 4- Buztana egin. Horretarako, kartoia buztan itxura eman eta kolore berdinarekin margotu, edo beste kolore batekin dinamismo gehiago emateko. Eta itsatsi.
- 5- Sugarra zetazko paperarekin egingo dugu. Ez jarri gehiegi, erori egingo baita bestela. Kolore ezberdinetako sugarra egin ondoren, muturrean itsatsi.



ANIMALIA ITXURAKO HARRIAK

Harriekin ondo pasatzeko aukera eskaintzen dizuegu eskulan honen bitartez. Horretarako, itxura ezberdinetako harri lauak eta margo akrilikoak beharko ditugu, besterik ez. Hasi aurretik, eskuan dituzun harriak ikusi eta imajinazioa erabili behar duzu harri bakoitzari zein irudi emango diozun erabakitzeke. Benetako animaliak margotu ditzakegu, baina baita guk asmatutakoak ere. Azkenean, imajinazioa erabiltzea da gakoa eta edozein aukera da baliagarria. Erabiliko ditugun piezak erabakitzerakoan, oinarritzko margoa eman eta, lehortu ondoren, kolorerako arkatzeekin zehaztasunak marraztuko ditugu.

TI-TA

**Etxe handia eta etxe txikia** 6 urtetik aurrera


Etxe handi batean, hartz handia bizi da, bakarrik. Etxe txiki batean, arraitxo txikia bizi da, bakarrik. Oso gertu bizi diren arren, inoiz ez dute topo egin. A zer bakardadea, kexatzen dira biak. Egun batean bizitzan aldaketa txiki bat egitea erabaki arte.

**Titirimari** 8 urtetik aurrera

Atzobezperako erreinuan bizi da Titirimari. Haren amak, Mandolina erreginak, nahiko luke printzesak andereño manerak izan ditzan eta ongi ezkondu dadin. Baina alabak ez ditu amaren amets berak, eta bereak bizi nahi ditu: erreinutik alde egiten du, eta abentura zoragarriak biziko ditu, bidean aurkitzen dituen munstro, hitz asmatzaile eta beste izaki batzuekin. Ezpain gozoko beste printzesa bat ere ezagutuko du.

**Renata piano jotzailea, ingeleseko ikaslea, eta abar** 10 urtetik aurrera

Renata piano jotzailea da bere amak artista handia izatea nahi duelako, baina inglesa ere ikasten du, eta lorezaintza ikasten du... Eginkizun asko dauzka eta, horregatik, lagunekin jokasteko astirik ez dauka! Harik eta, jakina, Renata egun batez lo dagoenean jolasten hasi arte, gauean!

**BITXIKERIAK**

Los Angeles hirian auto gehiago dago pertsonak baino.



Elefantea da 4 belauneko animalia bakarra.

Eguzkiak energia gehiago askatzen du segundo batean gizakiak hasieratik kontsumitutako energia guztia baino.





7 EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **EKAINAK 8** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkarte - Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



Sofia pozik bere sariekin.

AURREKO ALEKO IRABAZLEA

Aupa SOFIA txapelduna! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ren motxila zuretako! ZORIONAK!

ZU BAI MARGOLARI!

